

**SU ARTIFIZIALEN
NAZIOARTEKO
LEHIAKETA**

59

Abuztuak 10 – 17 Agosto

**CONCURSO
INTERNACIONAL DE
FUEGOS ARTIFICIALES**

Donostia / San Sebastián



AURKIBIDEA / ÍNDICE

1.	Kartela / Cartel	5
2.	59. Su Artifizialen Nazioarteko lehiaketa	8
	59 Concurso Internacional de Fuegos Artificiales	
	Egitaraua / Programa	9
	Pirotekniak lehiaketan / Pirotecnias a concurso	10
	Aste Nagusiko Amaiera / Clausura Semana Grande	17
	Sariak / Premios	19
	Epaimahai ofiziala / Jurado oficial	20
	Epaimahai gaztea / Jurado joven	21
	Herri epaimahaia / Jurado Popular	22
	Segurtasun neurriak / Medidas de seguridad	23
3.	Zezenuzkoa / Toro de fuego	26
4.	II. Piroteknia tradizioa / Tradición Pirotécnica II	30
	Japonia. Su loreen Herria / Japón. la Tierra de las flores de fuego	







KARTELA / CARTEL

Egilea / Autora: Svitlana Omelyanenko

Izenburua / Título: "Erreflexuak"

"Svitlana Omelyanenko dut izena, nire jaioterria Kyiv (Ukraina) da, baina duela 20 urtetik Irunen bizi naiz.

Txikitatik izan dut gertuko harremana argazkigintzarekin, aitari asko gustatzen baitzitaion, eta etxean berak errebelatzen baitzituen argazkiak. Oso gogoan ditut ilunpetan egiten diren lan horiek, argazkia 'marrazten' den bitartean. Magia hutsa iruditzen zitzaidan.

18 urterekin gurasoek nire lehen argazki kamera oparitu zidaten. Baina ez nintzen argazkigintzaren munduan gehiago murgildu, nire senarrak, argazkilaritzazaleak, bultzatu ninduen Irungo Argazkilaritza Elkartean ikastaro bat egitera.

Hortik argazkilaritzarekiko maitasuna handituz joan zen, nahiz eta su artifizialen argazkiak direnak, egia esan, ez zitzaidan batere ondo joaten. Nire senarra, berriz, argazkilaritza mota horretako profesionala da. Berak jarri zizkidan kamararen parametro guztiak eta erakutsi zidan nola egin. Garaipena berari zor diot. Biok aurkeztu genituen argazkiak, baina nire harridurarako, nire argazki batek irabazi zuen. Orain ez dago txantxarik, ezta ezer ere!

Urtero, aste nagusian, Donostiara joaten gara jai giroaz blaitzera eta, nola ez, su artifizialak ikustera. Kontxako hondartzan jarri ohi gara, eta handik, tripode baten laguntzaz, argazkiak ateratzen ditugu.

Argazki irabazleak 'Erreflexuak' du izena. Argazki hori atera nuen egunean,



Kontxako hondartzan jarri ginen, lehen lerroan. Marea beheara zegoen, eta harea bustiaren gainean erreflexu txatxuak zeuden. Hortik dator argazkiaren izenburua.

Amaitzeko, beste behin eskerrak eman nahi nizkion Aitor Ruiz de Angulo nire senarrari, su artifizialen argazkiak horren politak izan daitezen egin dituen 'magia trikimailuengatik'."

"Me llamo Svitlana Omelyanenko, mi ciudad natal es Kyiv (Ucrania), aunque desde hace 20 años vivo en Irún.

Desde pequeña he tenido contacto cercano con la fotografía, ya que a mi padre le gustaba mucho, e incluso, revelaba fotos él mismo en casa. Me acuerdo mucho de esos ratos a oscuras mientras se 'dibujaba' la foto. Me parecía pura magia.

A los 18 años mis padres me regalaron mi primera cámara de fotos. Aunque no fue ahí donde me adentré más en el mundo de la fotografía, sino que fue mi marido, también un aficionado a la fotografía, quien me animó a hacer un curso en la Sociedad Fotográfica Irunesa.

Desde ahí el amor por la fotografía fue creciendo, aunque lo que son fotos de los fuegos artificiales la verdad que no se me daban del todo bien. Mi marido, en cambio, es todo un profesional de ese tipo de fotografía. Fue él quien me puso todos los parámetros de la cámara y me enseñó como hacerlo. La victoria se la debo a él. Presentamos fotos los dos, pero para mi sorpresa, ganó una foto mía. ¡Anda que no hay bromas ni nada ahora a cuenta de eso en casa!

Todos los años en Semana Grande vamos a Donostia a empaparnos del ambiente festivo y, como no, a ver los fuegos artificiales. Solemos colocarnos en la playa de la Concha y desde ahí, armados con un trípode y una cámara, sacamos las fotos.

La foto ganadora se titula 'Erreflexuak'. El día que saqué esa foto, nos pusimos en la playa de la Concha, en primera fila. Estaba la marea baja con lo que había unos reflejos muy chulos sobre la arena mojada. De ahí el título de la foto.

Para terminar, quería una vez más agradecerle a mi marido Aitor Ruiz de Angulo por sus 'trucos de magia' para que las fotos de los fuegos artificiales salgan así de bonitas."





59

**SU ARTIFIZIALEN
NAZIOARTEKO
LEHIAKETA**

**CONCURSO INTERNACIONAL
DE FUEGOS ARTIFICIALES**

DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN 2024

ABUZTUA/AGOSTO 10 - 17

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostiafestak

 super
amara

 EL
DIARIO
VASCO



2

59. SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

59 CONCURSO INTERNACIONAL DE FUEGOS ARTIFICIALES



EGITARAU PROGRAMA

ALDERDI EDER ETA KONTXAKO BADIA 22:45 ALDERDI EDER Y BAHÍA DE LA CONCHA

Abuztuak 10. larunbata – sábado. 10 de agosto
PYROGENIE FEUERWERK (Alemania)

Abuztuak 11. igandea – domingo. 11 de agosto
PIROTECNIA DEL MEDITERRÁNEO (Valentzia / Valencia)

Abuztuak 12. astelehena – lunes. 12 de agosto
UNIC FEUX D'ARTIFICE (Frantzia / Francia)

Abuztuak 13. asteartea – martes. 13 de agosto
PIROTECNIA LÓPEZ (Coruña / A Coruña)

Abuztuak 14. asteazkena – miércoles. 14 de agosto
LUIGI DI MATTEO FIREWORKS (Italia)

Abuztuak 15. osteguna – jueves. 15 de agosto
PIROTECNIA VALENCIANA (Valentzia / Valencia)

Abuztuak 16. ostirala – viernes. 16 de agosto
PIROTECNIA VULCANO (Madril / Madrid)

Abuztuak 17. larunbata – sábado. 17 de agosto
IKUSKIZUN PIROMUSIKALA / ESPECTÁCULO PIROMUSICAL
PIROTECNIA OLEIRENSE (Portugal)





PIROTEKNIAK LEHIAKETAN PIROTECNIAS A CONCURSO

Abuztuak 10. larunbata – sábado. 10 de agosto **PYROGENIE FEUERWERK (Alemania)**

Pyrogenie Feuerwerk GmbH enpresa piroteknikoa Berlinen sortu zen 2016. urtean. Haren zuzendari nagusia, Ingo Schubert, piroteknia-industriari lotua dago 2005az geroztik nazioarteko hainbat enpresatan. Lanbide anitzeko talde bat du, piroteknia-
ren, ekitaldien teknologiaren eta logistikaren arloetako langileak biltzen dituen, urte askoko nazioarteko esperientzia dutenak.

Pyrogenie produktuen kalitate gorenaren sinonimoa da, ikuskizun paregabeen diseinua eta haiek gauatzeko fidagarritasuna. Enpresaren indargunea langileen urte askotako esperientzia da, ia edozein ingurunetan eragin piroteknikoak planifikatzen eta ezartzen. 2023an San Fermín de Oro saria lortu zuten, dotorezia eta ikusgarritasun handiko jaurtiketa baten ondoren.

Pyrogenie Feuerwerk GmbH es una empresa pirotécnica fundada en Berlín en 2016. Su director general, Ingo Schubert, lleva ligado a la industria pirotécnica desde 2005 en diversas empresas internacionales. Cuenta con un equipo multiprofesional que reúne a empleados de las distintas áreas de la pirotecnia, tecnología de eventos y logística con muchos años de experiencia internacional.

Pyrogenie es sinónimo de la más alta calidad de productos, diseño de espectáculos únicos y confiabilidad en su ejecución. El punto fuerte de la compañía son los muchos años de experiencia de sus empleados en la planificación e implementación de efectos pirotécnicos en casi cualquier entorno.



Abuztuak I I. igandea – Domingo. 11 de agosto

PIROTECNIA DEL MEDITERRÁNEO (Valentzia / Valencia)

Pirotecnia del Mediterráneo enpresako gerentea, Antonio García Juan, piroteknia-
ren arloan 15 urtetik gorako esperientzia duen profesionala da. Miguel Zamorano
Caballer sektoreko punta-puntako enpresetako batean trebatu ondoren, 2014an ba-
karka hasia erabaki zuen pirotekniaren munduan. Profesional handiz osatutako
talde bat du, su artifizialekin lan eginez esperientzia handia metatu duena eta mun-
duko edozein lekutan edozein motatako ikuskizun piroteknikoak diseinatu eta gara-
tzeko gai dena, kalitate eta segurtasun estandar zorrotzenekin.

2017an egindako jaurtiketaren ondoren, berriro parte hartuko du gure hirian.



El gerente de Pirotecnia del Mediterráneo, Antonio García Juan, es un profesional de la pirotecnia desde hace más de 15 años que, tras haberse formado en una de las empresas punteras del sector – Miguel Zamorano Caballer –, decide iniciar su andadura en solitario en el mundo de la pirotecnia en el año 2014. Cuenta con un gran equipo de profesionales, con una gran experiencia acumulada trabajando con fuegos artificiales y capaces de diseñar y desarrollar todo tipo de espectáculos pirotécnicos en cualquier lugar del mundo, con los estándares más exigentes de calidad y seguridad.

Repite participación en nuestra ciudad tras su disparo en el año 2017.





Abuztuak 12. astelehena – Lunes, 12 de agosto

UNIC FEUX D'ARTIFICE (frantzia / francia)

1873an sortua, familia-enpresa honek antzintasun handiari esker esperientzia sendoa du eta denboran zehar aldaketarako etengabeko gaitasuna erakusten du, onenen artean jarraitzeko. Feux d'Artifices Unic S.A.-k, 150 urteko esperientzia du su artifizialetan eta ikuskizun piroteknikoetan, eta dozenaka ikuskizun sortzen ditu urtero Europako 100 hiritan baino gehiagotan, helburu bakar batekin: ikusleak amets eginaraztea eta haiek beren su artifizialak sortzean sentitzen duten emozio bera transmititzea.

Arbasoen maisutasunari eta ezagutzari leial izaten jarraitzen dute; ekitaldi korporatibo, kultural edo kirol-ekitaldirik handienetan, inaugurazioetan, festetan, erakusketetan edo jaialdietan su-artifizialik ederrenak egin zituztenek. Musika, argiak eta su artifizialak konbinatuz, eszenaratze original, desberdin, egokitu eta pertsonalizatu bat sortzen dute ekitaldi bakoitzerako. Haien lana eta pasioa da.

Creada en 1873, esta antigüedad le confiere a esta empresa familiar una sólida experiencia y demuestra su continua capacidad de cambio en el tiempo para permanecer entre las mejores. Feux d'Artifices Unic S.A., con 150 años de experiencia en fuegos artificiales y espectáculos pirotécnicos crea decenas de espectáculos cada año en más de 100 ciudades europeas con un único objetivo: hacer soñar al público y vibrar tanto como ellos lo hacen al crear sus fuegos artificiales.

Fiel a la maestría y al conocimiento de sus antepasados que hicieron leyenda de los más bellos fuegos artificiales en los mayores eventos corporativos, culturales o deportivos, inauguraciones, fiestas, exposiciones o festivales... Utilizando una combinación de música, luces y fuegos artificiales para una puesta en escena original, diferente, adaptada y personalizada a cada evento. Es su trabajo y su pasión.



Abuztuak 13. asteartea – martes, 13 de agosto

PIROTECNIA LÓPEZ (Coruña / A Coruña)

Azken aurrerapen teknologikoekin eta piroteknia-lanak egiteko modu modernoekin lan eginez, tradizioaren eta modernitatearen arteko nahasketa ezin hobean, Pirotecnia López-en bost belaunaldiek 150 urtez pirotekniaren munduan kalitatea eta egiten jakitea mantentzea lortu dute. Ikuskizun piroteknikoen ekoizpena, errealizazioa, diseinua, merkaturatzea eta jaurtiketa, betiere kalitatearen, segurtasunaren eta berrikuntzaren premisak argi izanda.

Pirotecnia López-en jatorriak Santiago de Compostelan daude, 1870ean Bonaval izeneko gune batean. Enpresa erabat familiarra da, eta 1992an Sozietate Mugatu bihurtu zen. Kudeaketa, enpresa eta industria arloan legatuarekin jarraitzeko prestatutako belaunaldi berri baten esku geratu zen. 2016. urtean Urrezko Maskorra, Epaimahai Gazte Saria eta Herri Epaimahaiaren saria lortu zituen.

Trabajando con los últimos avances tecnológicos y las más modernas formas de hacer pirotecnia, en una perfecta mezcla entre tradición y modernidad, las cinco generaciones de Pirotecnia López han logrado durante más de 150 años mantener la calidad y el saber hacer en el mundo de la pirotecnia. Producción, realización, diseño, comercialización y disparo de espectáculos pirotécnicos teniendo siempre claras las premisas de calidad, seguridad e innovación.

Los orígenes de Pirotecnia López están en Santiago de Compostela en la zona de Bonaval allá por el año 1870. Empresa netamente familiar, en 1992 se transforma en Sociedad Limitada asumiendo la gestión una nueva generación preparada empresarial e industrialmente para continuar con el legado. En el año 2016 obtuvo tanto la Concha de Oro como el premio de la Juventud y el del Jurado Popular.



Abuztuak 14. asteazkena – miércoles. 14 de agosto

LUIGI DI MATTEO FIREWORKS (Italia)

Luigi di Matteo Fireworks Campaniako enpresa gazte eta dinamikoa da, familia-tradizio zahar baten oinarria. Bere arbaso Lorenzok sortu zuen 1853an. 1860an, Italia bildu zenean, Giuseppe Garibaldi Napolin sartu zen, eta Lorenzo gonbidatu zuen efemeride horren ospakizunetan suak pizteko. Campaniatik kanpo piroteknia-lanak arrakastaz jarraitu ondoren, enpresak Parisko mende berriko ospakizunetan parte hartu zuen, Luigi di Matteoren eta haren aita Gennaroren egungo zuzendaritzara iritsi arte.

Betidanik, arte piroteknikoan hobekuntzak bilatzeko konpromisoa hartuta, enpresa sendotu egin da teknizitate eta ikusgarritasun handiko ikuskizunetan. Italiako hegoaldeko leku garrantzitsuenetan ohikoa da su-artifizial jaurtiketan.

Luigi di Matteo Fireworks” es una empresa joven y dinámica de Campania, heredera de una antigua tradición familiar. Fue fundada en 1853 por su antepasado Lorenzo que fue invitado a encender las hogueras con motivo de las celebraciones de Giuseppe Garibaldi que entró en Nápoles en 1860 durante la unificación de Italia. Después de continuar con éxito su actividad pirotécnica fuera de Campania, la empresa participó en las celebraciones del nuevo siglo en París hasta llegar a la dirección actual de Luigi di Matteo y su padre Gennaro.

Siempre comprometida con la búsqueda de mejoras en el arte pirotécnico, la empresa se ha consolidado en la ejecución de espectáculos de gran técnica y espectacularidad. Habitual en los disparos de fuegos artificiales en los lugares más importantes del sur de Italia



Abuztuak 15. osteguna – jueves. 15 de agosto **PIROTECNIA VALENCIANA (Valentzia / Valencia)**

Pirotecnia Valencianak 2009an hartu zuen parte lehen aldiz gure lehiaketan, eta Brontzezko Maskorra lortu zuen. 2015ean, Zilarrezko Maskorra lortu zuen, eta 2023an egindako lehiaketako Urrezko Maskorra irabazi zuenez, aurtengue hirira bueltatuko da. Piroteknia gazte honek bi aldiz jaso du lehen saria Tarragonako Su Artifizialen Lehiaketan eta 2022an Bilboko Aste Nagusiko lehiaketako lehen saria lortu zuen.



La Pirotecnia Valenciana es una de las habituales de Aste Nagusia. En los últimos años, la Pirotecnia Valenciana ha recibido diferentes galardones en concursos tanto nacionales como internacionales; primer premio en el Concurso Internacional de Fuegos Artificiales de Logroño y el primer premio en el Concurso de Fuegos Artificiales de Tarragona, – que obtuvieron en dos ocasiones –, entre otros. En 2022 obtuvo el primer premio en la Aste Nagusia bilbaína y este año estará presente en nuestra ciudad en calidad de ganador del Concurso de 2023.



Abuztuak 16. ostirala – viernes. 16 de agosto

PIROTECNIA VULCANO (Madril / Madrid)

Pirotecnia Vulcano Madrilen sortu zen laurogeiko hamarkadan. Sortzailea, José Luis Giménez Privado jauna, valentziarra da sortzez, eta piroteknikaria bokazioz. Su artifizialen diseinuan eta jaurtiketan jardun zuen Espainiako enpresa piroteknikorik garrantzitsuenetako batean. José Luis ekintzailea eta dinamikoa da, eta bere industria pirotekniko propioa sortzea eta Madrilgo Villarejo de Salvamés herrian kokatzea erabaki zuen. Egunez egun, mugak zabaldu ditu eta, azkenean, bere lekua lortu du sektorearen barruan eta Madrilgo Erkidegoko enpresa lider bihurtu du Vulcano piroteknia.

Vulcano piroteknia ikuskizun tradizionaletan, piromusikaletan eta sekuentzialetan, musika duten multimedia ikuskizunetan eta monumentu, fatxada eta uretako pantailen gaineko ikusizko proiektioetan espezializatuta dago. Ikuskizunen kalitatea enpresaren ibilbide luzeak eta sari zerrenda luzeak bermatzen dute. Donostian, zehazki, Brontzezko Maskorra lortu zuen 2014an, eta Zilarrezko Maskorra 2019an.

Empresa nacida en Madrid en la década de los ochenta del siglo pasado. Su fundador D. José Luis Giménez Privado, valenciano de nacimiento y pirotécnico de vocación, trabajó en el diseño y disparo en una de las más importantes firmas pirotécnicas de España. Emprendedor y dinámico decidió montar su propia industria pirotécnica, ubicándola en la localidad madrileña de Villarejo de Salvanes. Día a día ha ido ampliando horizontes consiguiendo finalmente abrirse un hueco importante dentro del sector y situando a Pirotecnia Vulcano como empresa líder en la Comunidad de Madrid.

Pirotecnia Vulcano está especializada en espectáculos tradicionales, piromusicales, secuenciales, así como también en espectáculos multimedia con música y proyecciones visuales sobre monumentos, fachadas y pantallas acuáticas. La calidad de sus espectáculos está avalada por su larga trayectoria y su extenso listado de galardones. En concreto, en nuestra ciudad obtuvieron la Concha de Bronce en 2014 y la de Plata en 2019.





Abuztuak 17. larunbata – sábado. 17 de agosto

IKUSKIZUN PIROMUSIKALA / ESPECTÁCULO PIROMUSICAL

PIROTECNIA OLEIRENSE (Portugal)

2024ko Aste Nagusiko amaierako ikuskizun piromusikala Oleirensen pirotekniako portugaldarrak egingo du. 1948an sortua, Pirotecnia Oleirensen gaur egun ospe handiko enpresa eta marka da, ia zazpi hamarkadatan Portugalgo sektorean egindako dedikazioaren arrakastak babestua.

Bere ekintza guztien epizentroa Portugalgo erdialdean eta hegoaldean kokatzen da nagusiki; hala ere, bere arrakasta zalantzarik gabe iparraldetik hegoaldera, Azoreak eta Madeira eskualde autonomoak barne, parte hartzen dituen Portugalgo ekitaldi nazional ugari gehitza lortu duen balioagatik dator.

Luso Pirotecnia taldea Pirotecnia Oleirensen hasiera-hasieratik parte hartu du enpresa fundatzaile gisa, eta mugari garrantzitsua da enpresaren ibilbidean, eta erreferentzia-marka bat du, nazioartean balioa eta ospea duena, kalitatea, sormena eta eskusibitatea bermatzen dituen produktu guztietan, edozein ekitaldiren arrakasta sustatzen eta bermatzen duena.

Oleirensen egindako piromusikal ugarien artean, nabarmentzekoa da 2016an Abrantes hiriararen mendeurrena ospatzeko ekoizitakoa. Bertan, Portugalgo musikaren ordezkariak zuzenean parte hartu zuten, hala nola Marisa Lizek eta Luis Represasek, Promenade Nazioarteko Orkestra Sinfonikoak lagunduta.



Fundada en 1948, Pirotecnia Oleirense es hoy una empresa y una marca de reconocido prestigio, avalada por el éxito acumulado en casi 7 décadas de dedicación al sector en Portugal.

El epicentro de toda su acción se ubica principalmente en el centro y sur de Portugal, sin embargo, su éxito proviene sin duda del valor que logró agregar a los más diversos eventos nacionales en los que participó, de norte a sur del país, incluyendo las regiones autónomas de Azores y Madeira, desde Fiestas Tradicionales Populares y Religiosas hasta eventos nacionales y regionales.

El Grupo Luso Pirotecnia, del que Pirotecnia Oleirense forma parte desde sus inicios, como empresa fundadora, supone un hito importante en la trayectoria de la compañía. El hecho de ser fundador del mayor grupo del sector en Portugal, una marca de referencia con valor y prestigio internacional, confirma y también garantiza el valor de Pirotecnia Oleirense y sus productos y servicios.

Entre los numerosos piromusicales realizados por Oleirense destaca el producido en 2016 con motivo de la celebración del Centenario de la ciudad de Abrantes, en el que intervinieron en directo representantes de la música portuguesa como Marisa Liz y Luis Represas, acompañados por la Orquesta Sinfónica Internacional Promenade.



SARIAK

Aurten berriz ere Urrezko Maskorra saria lortzeko lehiatuko dira piroteknia etxeak Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko 58. Lehiaketan. Munduko zaharrenekoa den lehiaketa honen ospari esker antolakuntzak puntako enpresak erakartzen ditu, bai estatu osokoak baita nazioartekoak ere.

Hiru izango dira azken saria ebatziko duten epaimahaiak: Epaimahai Ofiziala, Epaimahai Gaztea eta donostiar ikusleak, egunero bidaltzen dituzten milaka botoen bidez, horretarako haien esku jarritako baliabideen bidez.

Epaimahai Ofizialak sari hauek esleituko ditu:

Urrezko Maskorra eta 7.000 €

Zilarrezko Maskorra eta 5.250 €

Brontzeko Maskorra eta 3.500 €

Epaimahai Gazteak Super Amara Epaimahai Gazte Saria esleituko du: garaikur bat, Epaimahai Gaztearen puntuazio gorena jaso duen lehiaketako piroteknia konpainiarentzat.

Donostiako ikusleek Ikusleen Sari Handia emango dute.

Sariak, Ikusleen Saria salbu (artearen ezagutuko ez dena), Aste Nagusiko azken egunean banatuko dira, abuztuaren 19an, larunbata, Victoria Eugenia antzokian, bertan bildutako epaimahai Ofizialak eta epaimahai Gazteak aste osoko bildumei buruzko iritziak trukatzeko eztabaidatu eta erabaki ondoren.

PREMIOS

Un año más la Concha de Oro será el premio por el que competirán las casas pirotécnicas a concurso en el 59 Festival Internacional de Fuegos Artificiales de Donostia/San Sebastián. El prestigio del Concurso, uno de los más antiguos del mundo, ayuda a la organización a poder contar con empresas de primer orden tanto en el plano nacional como en el internacional.

Tres serán los Jurados que determinen el palmarés final: el Jurado Oficial, el Jurado Joven y el público donostiarra a través de los miles de votos que cada día envía por los diferentes medios puestos a su disposición.

El Jurado Oficial concederá los siguientes premios:

Concha de Oro y 7.000€

Concha de Plata y 5.250€

Concha de Bronce y 3.500€

El Jurado Joven concederá el Premio Jurado Joven Super Amara, consistente en un trofeo para la firma pirotécnica del concurso al que el Jurado Joven otorgue mayor puntuación.

El público donostiarra otorgará el Gran Premio del Público.

La entrega de premios (excepto el Premio del Público que aún no se conocerá) se realizará el último día de la Semana Grande, sábado 17 de agosto, en el Teatro Victoria Eugenia tras la deliberación y decisión de los jurados Oficial y Joven allí reunidos para intercambiar opiniones sobre las colecciones de toda la semana.





EPAIMAHAI OFIZIALA
JURADO OFICIAL

IZEN-ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS	LANBIDEA PROFESIÓN
ALFONSO REIRIZ	SUPER AMARAko Marketing arduraduna Responsable de Marketing de SUPER AMARA
ANTXON BLANCO	Kazetaria Periodista
IZASKUN ASTONDOA	Piroteknian aditua Experta en pirotecnia
PILAR AGUAYO	Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko bazkidea Socia de la Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa
JON INSAUSTI	Festa jardueretako zinegotzi ordezkaria Concejal delegado de Actividades Festivas
JORDI BERTRAN	Kultura-kudeatzailea, tiro piroteknikoen antolatzailea 1985etik, eta ikertzailea, Universitat Rovira i Virgili, Tarragona Gestor cultural, organizador de disparos pirotècnics desde 1985 e investigador, Universitat Rovira i Virgili, Tarragona
ASIER AGUILAR	Epaimahai Gazte kide ohia Antigua miembro del Jurado Joven

EPAIMAHAI OFIZIALEKO KOORDINATZAILE
COORDINADORA DEL JURADO OFICIAL

MARÍA JESÚS TORRES UGARTEMENDIA	Donostiako Festakeko Zuzendaria Directora de Donostiako Festak
--	---






EPAIMAHAI GAZTEA JURADO JOVEN

Epaimahai gaztea 16 eta 25 urte arteko gazteek osatzen dute. Egunero, toki desberdinetatik ikusiko dituzte su artifizialak, suen azterketa osatua egiteko; gero, puntu jakin batean elkartuko dira, irudipenak eta iritziak elkarri adierazteko. Epaimahai Ofizialak bezala, puntuazioa ebazteko hainbat alderdi hartuko dituzte kontuan: kolorea, argitasuna, su bildumaren erritmoa, musikaltasuna, erabilitako piroteknia efektuak eta abar.

Epaimahai horretan parte hartu ahal izateko, Festak unitatearen web orrian, <https://astenagusia.donostiakultura.eus/eu/> eman behar da izena uztailaren 29tik eta abuztuaren 5eko 23.59ak baino lehen, eta Aste Nagusiko gau guztietan suak ikusteko konpromisoa hartu.



El jurado joven está compuesto por jóvenes de edades comprendidas entre los 16 y los 25 años. Todos los días visionan los fuegos artificiales desde distintos lugares con el fin de complimentar un análisis completo de los fuegos, reuniéndose después en un punto determinado para el intercambio de impresiones y opiniones. Al igual que el Jurado Oficial, tienen en cuenta varios aspectos para determinar sus puntuaciones: colorido, luminosidad, ritmo de la colección, musicalidad de la misma, efectos pirotécnicos utilizados, novedad de los efectos utilizados, etc.

Para poder participar en este Jurado, sólo hay que inscribirse a partir del 29 de julio y hasta las 23.59 del día 5 de agosto en la página web de Festak <https://astenagusia.donostiakultura.eus/es/> y comprometerse a ver los fuegos todas las noches de la Semana Grande





Zu ere epaimahaikide izan zaitezke. Nola bozka dezakezu?

1) ASTE NAGUSIKO WEB ORRIAREN BITARTEZ.

Zure botoa <https://astenagusia.donostiakultura.eus/es/orria> bisitatuz eman ahal izango duzu, abuztuaren 12ko 23:00etatik abuztuaren 17ko 23.59ra arte.

2) Super Amara supermerkatuetan eta web orrialdean <http://superamarafuegos.eus>

Zure paperezko botoa bete eta bozkatu abuztuaren 12tik 17a arte (bertan izango dira bozkatzeko txartelak)

Bozkatzeko modalitate hau erabiltzen dutenek honako zozketa honetan hartuko dute:

- . 500 €-ko erosketa-txartela SUPER AMARA-n
- . Bi lagunentzako asteburuko egonaldia bainuetxe batean. El Diario Vasco-k eskainitako saria.
- . Bi lagunentzako menua hiriko jatetxe batean. El Diario Vasco-k eskainitako saria.

IFK-CIF Q20005411



Tu también puedes ser el jurado. ¿Cómo puedes votar?

1) A TRAVES DE LA PAGINA WEB DE LA ASTE NAGUSIA

Podrás emitir tu voto visitando la página <https://astenagusia.donostiakultura.eus/es/>, desde el día 10 de agosto a las 23:00 horas hasta el día 17 de agosto a las 23.59 horas.

2) En los supermercados Super Amara y en su página Web <http://superamarafuegos.eus>

Rellenando tu papeleta y depositando tu voto en los supermercados del 12 al 17 de agosto.

Entre los participantes que utilicen esta modalidad de voto se sortearán:

- . Vale de compra en SUPER AMARA por valor de 500€
- . Una estancia de fin de semana para dos personas en un balneario. Premio ofrecido por El Diario Vasco.
- . Un menú para dos personas en un restaurante de la ciudad. Premio ofrecido por El Diario Vasco.





SEGURTASUN NEURRIAK

MEDIDAS DE SEGURIDAD

Segurtasuna bermatu ahal izateko, bete itzazu hurrengo arauak

1. Material piroteknikoa kokatzen den aldea itxita egongo da aste osoan. Bertan sartzea debekatua dago baimenduta ez dagoen edonorentzat. Errespetatu segurtasun arduradunak emandako irizpideak eta ez gainditu hesiekin edo zintarekin itxita dagoen eremua.
2. Gauero, 22:15etik aurrera, jendeari irtenarazi egingo zaio jaurtitze inguruneetatik, eta bertara sartzea debekatua egongo da. Eremu horretako bizilagunek gaueko 22:30ak baino lehenago etxeratu beharko dute.
3. Aparkalekuetako erabiltzaileek 22:00ak baino lehenago utzi beharko dituzte ibilgailuak, eta ezingo dituzte atera 23:30ak baino lehenago.
4. Inguruan dauden etxebizitza eta lokalen leiho eta balkoiak ixtea eta elementu errekorrak kentzea (arropa, toloak, hamakak...) gomendatzen da.
5. Su artifizialak jaurtitzean, maiz erortzen dira errauts hondakinak. Begietan sartuz gero, ur askorekin garbitzea komeni da, eta ez igurztea.
6. Jakinarazten dugu su artifizialen jaurtiketa ezingo dela ikusi jaurtiketa-zonaren inguruko eraikinetako terraza, balkoi edo leihoetatik.
7. Lagun gaitzazu eta aparka ezazu zure ibilgailua segurtasun eremutik kanpo, elementuren bat erori dakioko eta.
8. Gauero, ikuskizuna amaitutakoan, udal zerbitzuek itxitako inguruneak miatuko dituzte, hondakin piroteknikoen bila, 10 minutuz Jendea sartu ondoren, material susmagarririk aurkitzen baduzu, ez ukitu, ez bultza hankarekin, eztanda egin dezake eta. Ez eskutan erabili, aldendu eta jendeari arriskuaren berri eman. Segituan bilatutakoaren berri eman gertueneko segurtasun arduradunari edo agenteari.
9. Adin txikiko haur baten arduraduna bazara: haurra galduko balitzaizu jakinarazi iezaiozu udaltzain bati. Behin eta berriro debekatu iezaiozu haurrari material piroteknikorik ukitzen, kalte ondorio larriak sor ditzake eta.
10. Ikuskizuna bitartean, gaixotu (lipotimiak, zorabioak eta abar) edo zauriren bat izan ezker, segurtasun arduradun batengana edo inguruan aurkitzen diren osasun langileengana hurbildu zaitez.
11. Itsasoan: suak ikusteko badiara irteten diren ontzi patroiek dagokion agintarien instrukzioak bete beharko dituzte zehatz-mehatz.



12. Haizeagatiko esekidura: indarrean dagoen araudian ezarritakoa baino abiadura handiagoko jaurtiketa bat etetea, udaletxeko eraikinean instalatutako anemometroak jasotako neurria egiaztatu ondoren gertatuko da. Ikuskizuna hasi aurreko neurketak 22:30ean eta 22:40an egingo dira; abiadura ezarritakoa baino txikiagoa bada, suak 22:45ean hasiko dira; handiagoa bada, 22:50ean eta 23:00etan egingo dira neurketak. Neurketa egin ondoren, jaurti egingo dira, haizeak baretu egin duela egiaztatzen bada, eta ikuskizuna bertan behera geratuko da, 23:00ak neurketak ezarritako maximoa gainditzen jarraitzen bada.



- KONTROL PUNTUAK. Udaltzaingoa**
PUNTOS DE CONTROL. Guardia Municipal
- 1 Nautiko / Náutico
 - 2 Pilatosen Balkoia / Balcón de Pilatos
 - 3 Garibai - Peñaflorida
 - 4 Garibai - Andia
 - 5 Hiribidea / Avenida - Hernani
 - 6 Cervantes plaza
 - 7 Hondartzako Esparrua / Acotado Playa
 - 8 Londreseko eskailerak / Escaleras Londres
 - 9 Erlojuetako Arrapalak / Rampas Relojes
 - 10 Atletico-ko eskailerak / Escaleras Atlético
 - 11 Apaizen pasealekua / Paseo de los Curas

LARRIALDIETARAKO TELEFONO ZENBAKIAK
TELÉFONOS DE EMERGENCIA
 112 Ertzaintza - Ertzaintza
 092 Udaltzaingoa - Policía Municipal

- BALIABIDEAK**
RECURSOS
- Oinarrizko anbulantzia
Ambulancia básica
 - Anbulantzia medikalizatuta
Ambulancia medicalizada
 - Suhiltzaileak Bomberos
 - Baldeadora
 - PMA - APA
 - Salbamenduko ontzia
Embarcación salvamento
 - Sostengu logistikoko ontzia
Embarcación apoyo logístico
 - Pirotekniako Ibilgailuen Aparkalekua
Parking Vehículos Pirotecnia
 - Mugikortasun murriztua
dutenentzako erreserbatutako gunea
Espacio reservado a Personas con Movilidad Reducida

- EBAKUAZIO ETA SARTZEKO BIDEA**
VIA DE ACCESO Y EVACUACION
- Sarrera
Acceso
 - Irteera
Salida
 - Jaurtiketarako eremua
Zona de lanzamiento
 - Jendearentzako segurtasun eremua
Acotado zona de seguridad público
 - Tioivivo
Zaldiko maldikoa

Jarri haurrei eskumuturreko bat, identifikatzeko. Idatzi bertan bere izena eta, galtzen bada, zer telefono zenbakira deitu behar den.
 Identifique a los menores con pulseras con su nombre y un número de teléfono al que llamar por si se pierden.



Para garantía de seguridad siga estrictamente las siguientes pautas

1. La zona donde se coloca el material pirotécnico permanece acotada durante toda la semana, estando prohibido el acceso a la misma a personal no autorizado. Respete las instrucciones del personal de seguridad y no sobrepase el perímetro de seguridad acotado con vallas y/o cinta.
2. Cada noche a partir de las 22:h se desaloja al público de una amplia zona periférica al lugar de disparo de las colecciones estando prohibido el acceso a la misma. Las personas que habitan en dicha área deberán acceder a sus domicilios antes de las 22:30h.
3. Las personas que utilizan los parkings afectados deberán estacionar sus vehículos en el parking antes de las 22:00h, no pudiendo retirarlos antes de las 23:30h.
4. Se recomienda cerrar ventanas y balcones en las viviendas y locales próximos, así como retirar cualquier material combustible (ropa, toldos, hamacas...).
5. Durante el disparo de los fuegos artificiales es frecuente que caigan restos de ceniza. En caso de introducirse en los ojos, conviene enjuagar con agua abundante y no restregarse.
6. Se comunica que no se podrá presenciar el disparo de Fuegos Artificiales desde las terrazas, balcones o ventanas de los edificios circundantes a la zona de lanzamiento.
7. Colabore aparcando su vehículo fuera de la Zona de Seguridad, puede que le caiga algún resto.
8. Cada noche, una vez terminada la colección de fuegos los servicios municipales correspondientes rastrearán durante 10 minutos la zona amplia de acotado en busca de restos pirotécnicos. Una vez permitido el acceso de público, si encontrara algún material sospechoso de peligro no lo toque, ni lo empuje con el pie, puede explotar. En cualquier caso, nunca lo manipule, aléjese y alerte de su presencia a otras personas. Avise inmediatamente al personal de seguridad o al agente de autoridad más próximo.
9. Si es responsable de un menor: en caso de extravío, póngase en contacto con cualquier agente municipal. Reiteren la prohibición de tocar o manipular cualquier resto de material pirotécnico a menores, pueden causar daños irreversibles.
10. Durante el espectáculo, en caso de sentirse mal (lipotimias, mareos, etc.) o sufrir una herida, acuda al personal de seguridad o sanitario que se encuentra en las inmediaciones de la Zona de Seguridad.
11. En el mar: las personas responsables de las embarcaciones que salgan a la bahía para presenciar los fuegos deberán seguir estrictamente las instrucciones de la autoridad competente.
12. Suspensión por viento: la suspensión de un lanzamiento por velocidad del viento superior a la establecida en la normativa vigente se producirá tras comprobación de la medida recogida por el anemómetro instalado en el edificio del ayuntamiento. Las mediciones previas al inicio del espectáculo se realizarán a las 22.30 y a las 22.40 h: si la velocidad es inferior a la establecida los fuegos comenzarán a las 22.45 h; si es superior, se realizarán mediciones a las 22.50 y 23.00 h, procediéndose al lanzamiento tras la medición en la que se compruebe que el viento ha amainado y declarándose la suspensión del espectáculo, si la medición de las 23.00 h siguiera superando el máximo establecido.





ZEZEN SUZKOA TORO DE FUEGO

IFK-CIF Q20005411

6 ZEZEN 6 DONOSTIAKO ZESENSUZKOOK 6 TOROS 6

1	2	3	4	5	6
 MELTAUR	 SUA	 ARTILERO	 SEBAS	 BLAS	 Txistu
11 kg	11,5 kg	12 kg	11,5 kg	12,5 kg	13 kg
Karamelu koloreko adarrek, adarbazal xamarra Azarribalatu, algo cornibierro	Adarberde, adarbazala Astibende, cornibierro	Adarbeliza, adarberde xamarra eta adar-mutur traxila Astibegri, algo vaxeto y cornibierro	Adarzuia eta adarberde Astibianco y cornibierro	Adarzuia, adarbazala Astibianco, cornibierro	Adarbeliza, adarberde xamarra Astibegri, algo cornibierro



Donostiako zezensuzkoa, bere soinu-banda duen zezen-entzierroa

1881ean, Serafin Barojak "Iriyarena" idatzi zuen zezensuzkoa goraiatzeko:

"Xexenak dira
Beltx-beltxak dira,
Harrapatzen bazaitu
Bertan, bertan, Hilko zaitu.

.....

O Donostiko zezen suzkoa izan zaitez zorionekoa!

Irtena da zezena arkupetik
Txingarra daiola atzealdetik
Danbadaka Ta jiraka
Jendeen tartetik
Zalapart hartan zenbat nahaspil
Zenbat karraxi, zer iskanbil
Itsumuka
Trunbuiluka
Jende dena dabil
O, zu, zezen onen autorea
Izan zaitez glORIZ bete!

....."

Hau ere aurtengo soinu-banda izango da. Joselontxo 's txarangak interpretatuko du, udaletxeko terrazatik, Aste Nagusiaren azken egunean, zezensuzkoen entzierroa 2025era arte agurtzeko.

Donostiako zezensuzkoa, kulturalki babestutako figura

2013ko, maiatzaren 7an 563/2010 Errege Dekretua onartu zen, zeinaren 18. zenbakiko Jarraibide Tekniko Osagarriak piroteknia erabiltzen den jai erlijioso, kultural eta tradizionalak arautzen zituen. Erregulazio horrek zuzenean eragiten zion zezensuzkoari, eta, une horretatik aurrera, alde zuzenetik "jai-adierazpen kultural edo tradizionala toki- edo autonomia-mailan" gisa aitortu behar zen.

Donostiako Udalak, jarduera hori jai orokorretan eta auzokoetan errotuta dagoela jakinik, nahitaezko aitortpena eskatu zuen.

2013ko uztailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak 400/2013 Dekretua onartu zuen, eta haren BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAK hau ezartzen du:

"BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. – Zezensuzkoa.

Maiatzaren 7ko 563/2010 Errege Dekretuaren bidez onartutako Piroteknia Artikuluaren eta Kartutxoaren Erregelamenduaren 18. Jarraibide Tekniko Osagarria aplikatzeko, «Suzko Zezena» jai-manifestazioa tradizionaltzat jotzen da autonomia-erkidegoan. "

Xedapen honek Aste Nagusiko entzierroa aitortzen eta babesten du.

Donostiako zezensuzkoa, parte hartzea eta segurtasun-neurriak

Jai-jardueren antolaketaren bilakaerak, bereziki suarekin lotutako jarduerari dagokienez, segurtasun-neurriak ezartzea ekarri du, erabilitako materialei ez ezik, horiek manipulatzeko dituztenei ere eragiten dietenak.



Gaur egun, zezensuzkoaren egitura beira-zuntzekoa da, eta zezen baten forma du. Zezen horri artzain edo monosabioek laguntzen diote ibilbidean zehar, eta lasterketa sanfermin-estiloan egiteko zain dagoen jendearengana hurbiltzera bultzatzen dituzte.

Entzierro berezi honetako "kuadrillako" kide guztiek Eusko Jaurlaritzak emandako prestakuntza dute, taldea "eraman eta zuzendu" ahal izateko dagokion ziurtagiria ematen duena.

Zaila da zezensuzkoak zu harrapatzea, baina txinpartaren batek edo bestek harrapatu zaitzake! Entzierrora bazatoz:

- .- Entzierroa txupinazo batekin hasten da su artifizialen ondoren (23:30ean, gutxi gorabehera)
- .- Kotoizko jantziak erabili, zuntz akrilikoak saihestuz
- .- Nahikoa distantziara korrika egin txinpartek harrapa ez zaitzaten
- .- Zezena deitu, baina ez heldu eta ez ukitu
- .- Une oro errespetatu zezenak eraman eta zuzentzen dituztenak; jaiaz goza dezazun ateratzen dira.
- .- Entzierroa beste txupinazo batekin amaitutzat ematen da, azkena datorren zezena Boulevardera iristen denean.

Toro de fuego donostiarra - encierro de toros con banda sonora propia

En 1881, Serafin Baroja escribe "Iriyarena" para loa del zezensuzko:

"Xexenak dira
Beltx-beltxak dira,
Harrapatzen bazaitu
Bertan, bertan, Hilko zaitu.

.....

O Donostiko zezen suzkoa izan zaitez zorionekoa!
Irtena da zezena arkupetik
Txingarra daiola atzealdetik
Danbadaka Ta jiraka
Jendeen tartetik
Zalapart hartan zenbat nahaspil
Zenbat karraxi, zer iskanbil
Itsumuka
Trunbuiluka
Jende dena dabil
O, zu, zezen onen autorea
Izan zaitez gloriz betea!
....."

Esta será también la banda sonora de este año. La interpretará, desde la terraza del edificio del ayuntamiento, la txaranga Joselontxo's el último día de la Semana Grande para despedir nuestro singular el encierro de toros de fuego hasta 2025.

Toro de fuego donostiarra, figura culturalmente protegida



El año 2013, se aprobó el Real Decreto 563/2010, de 7 de mayo, cuya Instrucción Técnica Complementaria Número 18 regulaba las Manifestaciones festivas religiosas, culturales y tradicionales en las que se utilice pirotecnia.

Esta regulación afectaba directamente al Toro de Fuego cuya celebración exigía a partir de ese momento su previo reconocimiento como “manifestación festiva de carácter cultural o tradicional, a nivel local o autonómico”.

El ayuntamiento de Donostia/San Sebastián consciente del arraigo de esta actividad en sus fiestas, tanto generales como de barrio, solicitó el reconocimiento preceptivo.

Con fecha 30 de julio de 2013, se aprueba por el Gobierno Vasco el decreto 400/2013 cuya DISPOSICION ADICIONAL SEGUNDA establece:

“DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.- Toro de fuego.

A los efectos de la aplicación de la Instrucción Técnica Complementaria n.º 18 del Reglamento de Artículos Pirotécnicos y Cartuchería, aprobado por el Real Decreto 563/2010, de 7 de mayo, se declara la manifestación festiva «Toro de Fuego» como de carácter tradicional a nivel autonómico.”

Esta disposición, reconoce y protege la celebración del encierro de la Semana Grande.

Toro de fuego donostiarra - participación y medidas de seguridad

La evolución de la organización de actividades festivas, especialmente en lo que a actividades con fuego se refiere, ha conllevado el establecimiento de medidas de seguridad que no sólo afectan a los materiales utilizados, sino también a quienes los manipulan.

En la actualidad la estructura del toro de fuego es de fibra de vidrio y su forma la de un toro al que acompañan en su recorrido los pastores o monosabios que les incitan a acercarse al público que espera su llegada para realizar su carrera al más puro estilo sanferminero.

Todos los integrantes de la “cuadrilla” de este peculiar encierro cuentan con formación impartida por el Gobierno Vasco que expide la certificación acreditativa correspondiente para poder “llevar y dirigir” a la manada.

Es difícil que el toro de fuego te arrolle, ¡pero alguna que otra chispa puede llegar a alcanzarte! Si vienes al encierro:

- .- El encierro comienza con un txupinazo tras los fuegos artificiales (aprox. a las 23.30 horas)
- .- Utiliza prendas de algodón, evitando las fibras acrílicas
- .- Corre a suficiente distancia para que las chispas no te atrapen
- .- Cita al toro, pero no lo agarres ni lo toques
- .- Respeta en todo momento a quienes portan y dirigen la manada; lo hacen para que puedas disfrutar de la fiesta.
- .- El encierro se da por finalizado con otro txupinazo cuando el toro más rezagado llega al Boulevard.





II. PIROTEKNAIA TRADIZIOA TRADICIÓN PIROTÉCNICA II



JAPONIA, SU LOREEN HERRIA

Japoniak benetako maitasuna sentitzen du su artifizialekiko, eta horregatik ez da harritzen su artifizialak "Hanabi" edo "su-lore" deitzea, Japonia herria berak duen poesia eta sofistikazioa direla eta.

Uharteetako kultura-ekitaldi ia guztietan su artifizialak izaten dira sistematikoki urte osoan zehar, baina bereziki udan, su artifizialen denboraldia biziagoa denean eta ikuskizunak ospakizun erlijiosoen eta festa-ospakizunen harira antolatzen diren lehiaketa ugarietan ematen direnean.

Dakigunez, Japonian 1733an jaurti zituzten lehen su artifizialak: kolerak Edo hiria (egungo Tokio) suntsitu zuen 1732an, eta 900.000 pertsona hil ziren. Hiriko shogunak, Tokugawa Yoshimunek (1684-1751), Ryogoku ibaira 20 su artifizial botatzea agindu zuen, gaixotasunaren ondorioz hil ziren pertsonak gogoratzeko eta pandemiaren amaieragatik otoitz egiteko.

Une horretatik aurrera, herrialde osoko santutegiak su artifizialak erabiltzen hasi ziren jainkoei eskaintzak egiteko. Orduetik eta gaur egun arte, Japoniako su artifizialak itxaropenaren sinbolo dira eta otoitz-elementuak dituzte, Japoniako kulturaren errota dira eta euren nortasun-ezaugarrietako bat bihurtu dira.

Japoniako su artifizialek edertasuna, berrikuntza eta originaltasuna uztartzen dituzte, artisau-ekoizpen maila handiarekin batera. Efektu pirotekniko bakoitza bakarra da.

Japoniako su artifizialek hamalau neurri desberdin dituzte, diametro 6 zentimetrotik "yonshakudama" ra, munduko handiena dela esaten dena 120 zentimetroko diametroarekin.

Jaurti ondoren, su artifizial japoniarrak lehertu egingo dira, karkasa baino ia mila aldiz handiagoa izan arte.

Japoniar enpresak Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko Jaialdian

Gure badiak zazpi aldiz hartu ditu japoniar jatorriko enpresak.

1966ko abuztuaren 27an, Marutamaya Ogatsu Fireworks C.O. Ltd (Fuchu, Tokio).

1970eko abuztuaren 15ean, Hinomaru enpresak Pirotecnia Zaragozana etxearekin partekatu zuen ikuskizuna

1973ko abuztuaren 14an, Marutamaya Ogatsu Fireworks C.O. Ltd (Fuchu, Tokio)

1983ko abuztuaren 17an, Hosoya Enterprises Co., Ltd. (Akiruno, Tokio), lehiaketako Brontzezko Maskorra lortuz.

1984ko abuztuaren 17an, Marutamaya Ogatsu Fireworks C.O. Ltd (Tokio)

1985eko abuztuaren 16an, Hosoya Enterprises Co., Ltd. (Akiruno, Tokio)

2000ko abuztuaren 18an, Nihonbashi Marutamaya Co., Ltd. (Tokio)



TRADICION PIROTECNICA II: JAPON, LA TIERRA DE LAS FLORES DE FUEGO

Japón siente un verdadero amor por los fuegos artificiales, por ello no sorprende que se les llame "Hanabi" o "flor de fuego", dada la poesía y la sofisticación que rezuma la tierra del sol naciente. Casi todos los eventos culturales en sus islas van sistemáticamente acompañados de fuegos artificiales durante todo el año, pero especialmente en verano, cuando la temporada de fuegos artificiales es más intensa y los espectáculos se prodigan en los numerosos certámenes que se organizan con motivo de celebraciones religiosas y festivas.

El primer lanzamiento de fuegos artificiales en Japón del que se tiene constancia se produce en 1733: el cólera arrasó la ciudad de Edo (actual Tokio) en 1732, cobrándose unas 900.000 vidas. El shogun de la ciudad, Tokugawa Yoshimune (1684-1751), ordenó el lanzamiento de 20 fuegos artificiales sobre el río Ryogoku para recordar a las personas que habían perdido la vida a causa de la enfermedad y orar por el fin de la pandemia.

A partir de ese momento, los santuarios de todo el país comenzaron a usar fuegos artificiales como ofrendas a los dioses. Desde esa fecha y hasta el día de hoy, los fuegos artificiales japoneses son símbolo de esperanza y contienen elementos de plegaria, han arraigado en la cultura japonesa y se han convertido en una de sus señas de identidad.

Los fuegos artificiales japoneses combinan belleza, innovación y originalidad, además de un alto grado de producción artesana. Cada efecto pirotécnico es único.

Los fuegos artificiales japoneses tienen catorce medidas diferentes, que van desde 6 cms de diámetro hasta el "yonshaku-dama", que se dice que es el más grande del mundo con 120 centímetros de diámetro.

Después de ser lanzados, los fuegos artificiales japoneses explotarán hasta alcanzar un tamaño casi mil veces superior al de la carcasa que lo contenía.

Firmas japonesas en el Festival Internacional de Fuegos Artificiales de Donostia / San Sebastián
Nuestra bahía ha acogido en siete ocasiones firmas de procedencia japonesa.

El 27 de agosto de 1966, Marutamaya Ogatsu Fireworks C.O. Ltd. (Fuchu, Tokio)

El 15 de Agosto de 1970, Hinomaru Compartió Disparo con Pirotecnia Zaragoza

El 14 de Agosto de 1973, Marutamaya Ogatsu Fireworks C.O. (Fuchu, Tokio)

El 17 de Agosto de 1983, Pirotecnia Hosoya (Akiruno, Tokio), obtuvo la Concha De Bronce Del Certamen.

El 17 de Agosto de 1984, Marutamaya Ogatsu Fireworks C.O. Ltd. (Fuchu, Tokio)

El 16 de Agosto de 1985, Pirotecnia Hosoya (Akiruno, Tokio)

El 18 de Agosto de 2000, Nihonbashi Marutamaya Co., Ltd. (Chuo-Ku, Tokio)



IFK-CIF Q20005411



59

**SU ARTIFIZIALEN
NAZIOARTEKO
LEHIAKETA**

**CONCURSO INTERNACIONAL
DE FUEGOS ARTIFICIALES
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN 2024
ABUZTUA/AGOSTO 10 - 17**

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostiafestak

 **super
amara**

 **EL
DIARIO
VASCO**

Agustín / Locam. Sotiana Chelengado Puroit

